

Animalien Ongizaterako Errege Dekretu Berria

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak Errege Dekretu berria argitaratu du indarrean zeuden arauetan zenbait aldaketa egiteko: tresnak sortu ditu baserrietako animalien ongizatea hobetzeko, bai eta agintari eskudunei kontrol ofizialak egiten laguntzeko ere.

Oro har, [martxoaren 7ko 159/2023 Errege Dekretuan \(Animalien ongizatearen esparruan kontrol ofizialak egiteko Europako Batzordearen araudia Espainian aplikatzeko xedapenak ezartzeari, eta zenbait errege dekretu aldatzeari buruzkoa\)](#) **baserriko animalien babesari, ustiategietan larrialdiko sakrifizioak egiteari eta elikakateari buruzko informazioari** buruzko zenbait arau aldatzen dira. Arauak balio berriak ezarri ditu, hala nola, animalien gehieneko dentsitatea, eta elikadura, ur, janontzi eta ingurumeneko baldintzei buruzko betebeharrak.

Txerrien ekoizpenari dagokionez, txerriak babesteko gutxieneko arauak aldatu dira. Horrez gain, manipulatu daitezkeen animalientzako materiala ere arautu da, txerriei buztana mozteko praktika ahalik eta gehien murrizteko.

Animalien ongizaterako plan bat izateko beharra zabaldu egin da (dagoeneko txerri- eta hegazti-hazkuntzako baserrietan indarrean dago). Plana **ustiategietako albaitariak** egin beharko dute eta tamaina zehatz bateko ustiategietan aplikatuko da; baserriaren arabera egokituko da. Baserrietako titularrek **4 urte** izango dituzte plan hori sortzeko.

Animalien ongizaterako eta babeserako koordinazio-mahaia sortuko da, eta **abeltzaintzaren eta akuikulturaren esparruko eta erreferentziatzeko zentro nazionala** sortu behar dela xedatu da. Lan hori egiteko, eta bi urteko eperako, **Kataluniako Nekazaritzako Elikagaien Ikerketa eta Teknologia Institutua (IRTA)** izendatu da, **Bartzelonako Unibertsitate Autonomoarekin** partzuergoan.

Arau berria baserrietako baldintzak eta animalien erabilera hobetzeko argitaratu dira; horregatik, hain zuzen ere, egungo ezagutza zientifikora egokitutako baldintza zehatzagoak ezarri dira. Baserriek bi urte izango dituzte beharrezko egokitzapenak egiteko.

Hegaztien ongizateari buruzko txosten zientifiko berriak

Duela gutxi EFSAk baserrietako gizentzeko oilaskoen eta oilo erruleen ongizateari buruzko **bi txosten zientifiko** argitaratu ditu. Bertan, hainbat gairi buruzko aholkularitza eskaini dute: espazioa eta egiturak, animalien dentsitatea, argiztapena, hautsa, zarata eta hondakinak.

Aipatutako bi irizpen zientifiko horietan ekoizpen ziklo osoa eta arriskuak kontuan hartuz EBn

hegaztiak hazteko sistemak ebaluatzen dira, bai eta hegaztien ongizatean arrisku horiek dituzten ondorioak ere.

Hegaztien **ongizaterako ondorioak identifikatu** ziren, eta, nabarmenen artean, honako hauek azpimarratu behar ditugu: hezurretako eta ehun biguinetako lesioak; zauriak luma, erpe eta mokoan; taldeko estresa; mugimendu faltaren ondorioz portaera eta jarrera naturalak izateko ezintasuna (esplorazioa, konforta eta isolamendua), eta, hortaz, atsedenerako arazoak.

Baserrietako gizentzeko oilaskoen eta oilo erruleen ongizatea hobetzearren, EFSAko zientzialariek honako **gomendio hauek** eman dituzte:

- **Kaiolen erabilera saihestea.**
- **Luma, erpe eta moko ez moztea, alferrikako mina sortzen baitu.**
- Animalien **dentsitatea murriztea** ohiko portaera ahalbidetzeko.
- Honako **egitura hauek izatea**:
 - **Altxatutako plataformak**; aldibereko atsedena ahalbidetzeko eta harrapakaritzza saihesteko, ihes egiteko aukera baitute.
 - **Estalitako terrazak**; esplorazioa, elikagaiak bilatzea eta hauts-bainuak ahalbidetzeko.
- **Xehatu** daitekeen **ohea**, konforta, elikagaiak bilatzea eta esplorazio-portaera hobetuko duten elementuekin.

Dokumentu horiek "Baserritik mahaira" Estrategiaren esparruan sortu eta Batzordeak animalien ongizatearen esparruan egindako legeen berrikuspenaren parte dira; halaber, herritarrek abiarazitako [End the age cage](#) kanpainaren babesa jaso dute. Batzordearen berrikuspen horretatik abiatuta 2023ko bigarren seihilekoan lege-proposamena abiaraztea espero da.

[Garraioan animalien ongizatea hobetzeko gomendioak](#)

EFSAk bost zientzia-irizpen argitaratu ditu azientzaren garraiorako baldintza onenei buruz; hausnarkari txikiak (ardi eta ahuntzak), ekidoak (zaldi eta astoak), behi-azienda (behi eta txahalak), txerri-azienda, edukiontzietan garraiatzen diren animaliak, etxeko hegaztiak barne (oilaskoak, oilo erruleak, indioilarrak, etab.), eta untxiak.

Gaur egun, Europar Batasunean arlo horretako legeria berrikusten ari dira, eta irizpen horiek legeria eguneratzeko oinarri izango dira.

«Animalien ongizatearen arloko jardunbide egokiek animalien alferrikako sufrimendua murrizteaz gain, haien osasuna hobetzen ere laguntzen dute; izan ere, funtsezko elementua da elikakatearen segurtasunerako, batez ere aintzat hartzen badugu animalien ongizatearen, animalien osasunaren eta elikagaiak transmititutako gaixotasunen arteko lotura»

Irizpide horiek zerrendatutako gomendioan artean, besteak beste, honako hauek aurki ditzakegu: ibilgailuetan izan beharreko tenperaturen muga zehatzak eta animalien espezie bakoitzerako gutxienezko espazioa.

EFSAk, halaber, zenbait faktoreen bilakaera ere deskribatzen du, besteak beste, garraioan goseak, egarriak eta nekeak eragindako estresa, eta gomendatzen du bidaiak ahalik eta motzenak izatea, estres hori prebenitu ahal izateko.

Animalien espezieen araberako berariazko 5 irizpide horiez gain, EFSAk bi infografia ere argitaratu ditu. Horietako bat edukiontzietan animalia txikiak garraiatzeari buruzkoa da, eta bestea tamaina handiagoko animaliei buruzkoa.

- [Hausnarkari txikiak](#)
- [Ekidoak](#)
- [Behi-azienda](#)
- [Txerri-azienda](#)
- [Etxeko hegaztiak eta untxiak](#)

Iturria: [More space, lower temperatures, shorter journeys: EFSA recommendations to improve animal welfare during transport](#)

[Animalien ongizatearen etiketatzearen inguruko txosten berria](#)

EBk ikerketa bat argitaratu du eta bertan animalien ongizatearen etiketatzearen inguruko informazioa jaso eta aztertzen du.

Dokumentua 2021eko apirilaren eta 2022ko otsailaren artean egin da eta kontsumitzaileen datu kuantitatibo eta kualitatiboak jasotzen ditu baserriko animalien ongizatearen estandarren inguruko ezagutzari dagokionez. Era berean, etiketatzean eska dezaketen informazioari buruzko datuak jaso dira. Txostenaren xede nagusia da EB laguntzea Europa mailan egin daitezkeen ekimenetan.

Ikerketak EBn dauden 51 etiketatze-sistema izan zituen ardatz; sistema horien 17 ekoizpen ekologikokoak dira.

Honako hau da txostenaren ondorioen laburpena:

1. Kontsumitzaileek **argi adierazi dute** animalia-jatorria duten produktu guztien ekoizpenerako erabiltzen diren **animalien ongizateari buruzko informazioa behar dutela**.
2. Produktu ekologikoak: **ez dago argi kontsumitzaileek etiketatze honi dagokionez duten konfiantza**. Ondorioz, ez da betetzen informazio-eskaera.
3. **Estatu Kide bakoitzaren etiketa askok zalantzak sortzen dituzte**, eta ekoizleengan eragin txarra izan dezake horrek.
4. **Informazioaren formatua** ganadua hazteko baldintzei dagokionez **ez da egokia**: publikoaren pertzepzioak eta arloko teknikarien ebaluazioak adierazten du ongizateari dagozkion gaiak ez zaizkiola publiko orokorrari iristen.
5. Animalien ongizatearen etiketatze-sistemen dimentsio ekonomikoak argi uzten du kostuei, operadoreen diru-sarrerei eta kontsumitzaileek ordaintzeko duten prestutasunari dagozkion gaiak oso konplexuak direla. Orokorrean, **erosleak ordaintzeko prestutasun handiagoa dute animaliak hazteko baldintzen inguruko informazioa badute eta uste badute**

produktuaren kalitatea altua dela.

6. Animalien ongizatean etiketatze-eskemen eragina ongizatearen inguruko egungo araudiaz gaidikoa da: **etiketatzeak legeria hobe betetzen laguntzen du**; izan ere, Agintari eskudunak egindako kontrol ofizialez gainera, **kontrol gehigarriak egiten dira**.

Laburbilduz, **kontsumitzaileen beharrak ez daude asebeteta eta eskaera argia dago**. Gainera, EBn animalien ongizatearen **etiketatze-sistemen** egungo egoera **sinplifikatu eta horren inguruko kontzientziazioa handitu behar da**.

Horrenbestez, ikerketaren emaitzek adierazten dute “baserrik mahaira” estrategiaren testuinguruan interesgarria dela Batzordeak aintzat hartzea etiketatze aukerak, elikakatearen bidez produktuaren balioa hobe helarazteko.

Txosten berria: animalien ongizate-maila baserrietan

EEk txosten bat argitaratu du; bertan, abeltzaintza-ustategietan animalien ongizateari buruz egindako kontrol ofizialen azken emaitzak aztertzen dira eta ongizatea neurtzeko ezarritako sistemetako batzuk deskribatzen dira.

Batzordeak kontrol ofizialei buruz egindako azken ikuskaritzetako emaitzen arabera, zailtasunak daude ustategietan animalien ongizatearen arloan egindako aurrerapenen jarraipenerako sistema eraginkorrak ezartzeko. Izan ere, ez dago ongizatea neurtzeko mundu osoan onartutako adierazleen multzo bakarra.

Datuek legezko betekizunak betetzen diren ala ez adierazten dute, baina ez dute aztertzen arazoaren garrantzia eta ez dute animalien benetako egoerari buruzko informazio nahikorik ematen.

Txostenean, ustategiko baliabideen hornikuntzan baino gehiago (adibidez, kaiolatutako animaliak, mastekagarriak) animaliaen egoera orokorrean oinarritutako adierazleak erabiltzen hasi diren (Italia, txerrietan buztanak moztea eta Holanda, oilo erruleen egoera) zenbait estatu kidetan ezarritako sistemetako batzuk aipatzen dira.

Txostenak ondorioztatzen du adierazle espezifiko eta egokiak ezarri behar direla animalien ongizateari buruzko EBren legeriaren egungo berrikuspenean.

Albaitaritzako sendagaiei buruzko infografia berria

Elikak albaitaritzako sendagaiari buruzko 2019/6 Erregelamendu berriaren aldaketa

garrantzitsuenak jasotzen dituen infografia bat egin du, errazago ulertzeko.

Joan den urtarrilaren 28an indarrean sartu zela argitaratu ondoren, araudi berri honen berri eman genuen [albiste hau](#) argitaratzean. Orain, arau honen aldaketa garrantzitsuenak laburbiltzen dituen infografia hau argitaratu du ELIKAK:

Sektoreko profesionalen eskura jartzen dugu infografia, inprimatzeko moduan:

Animalien ongizatea ardiak eta ahuntzak hiltzean

EFSAk ebaluazio bat argitaratu berri du animalien ongizateari buruz ardiak eta ahuntzak hiltzeko orduan. Ebaluazioa zientzia-ikerketetan oinarritzen da.

Zientzia-irizpen hori EFSA animaliak hiltzean haien ongizatearen esparruan egiten ari den ebaluazioetako bat da, eta horixe da azkena. Aurretik, [eskortako hegaztiei](#), [untxiei](#), [txerriei](#) eta behiei buruzko txostenak argitaratu ditu.

Ebaluazioan honako hauek identifikatu ziren:

- 12 ondorio kaltegarri ardiek eta ahuntzek hiltzen dituztenean unean izan dezaketen ongizaterako, besteak beste: beroagatiko estresa, hotzagatiko estresa, nekea, egarria luzaroan, gosea luzaroan, mugimendu eragotzia, mugimendu mugatua, atsedean hartzeko arazoak, estres soziala, mina, beldurra eta estutasuna.
- Animaliak hiltzean gerta daitezkeen 40 arrisku ongizaterako. Horietako gehienak zorabialdiarekin eta odolustearekin daude lotuta.

Ebaluazioaren ondorioak honela laburbil daitezke:

- Identifikatutako arrisku gehienak langileen trebetasun eta gaitasun ezarekin (adibidez, modu desegokian maneiatzea) daude lotuta, baita instalazioen diseinuarekin, eraikuntzarekin eta mantentze-lan eskasekin ere.
- Arriskuak metagarriak izan daitezke eta animaliak hiltzean ondorio negatiboak areagotu ditzakete.
- Arrisku batzuk prozesu osoan gerta daitezke edo fase batzuetan baino ez, zorabialdiaren ostean kontzientzia galdu aurreko unera arte.

Iritzian honako gomendio orokor hauek nabarmentzen dira:

- Instalazioen diseinuaren, eraikuntzaren eta mantentze-lanen oinarria da **ulertzea ardiek eta ahuntzek beren ingurunea nola hautematen duten, eta haien ongizate-baldintzak bete behar dituzte.**
- Ongi diseinatutako eta hornitutako hilegi batean ere, **langileen trebetasuna ezinbesteko prebentzio-neurria da ongizaterako arriskuak ekidin eta ondorioak arintzeko.** Langileek gai izan behar dute ardiak eta ahuntzak sentitzen duten izakitzat hartzeko, espeziearen jokabide espezifikoa ongi ulertzeko eta prozesu osoan horren arabera jarduteko.

- Etorkizunean zientzia-irizpen bat egin behar da **arriskuak larritasunaren, garrantziaren eta ondorioen maiztasunaren arabera sailkatzeko**. Horren xedea da lehentasuna ematea prebentzio neurriei eta neurri zuzentzaileei, eta hobetzea animaliak hiltzeko prozedura.
- **Ongizate-maila neur daiteke** (ABM, animal based measures) eta animaliak hiltzeko fase bakoitzean ebaluatu behar da, ongizaterako arriskuak prebenitu eta zuzentzeko, eta ondorio negatiboak arintzeko.
- **Hiltegiko arduradunak** arriskuak ager daitezen ekiditeko **jarduerak abiarazi behar ditu**. Neurriok honako hauek hartu beharko lituzkete aintzat:
 - Lokalen ikuskapena eta mantentze-lanak
 - langileen prestakuntza eta txandakatzea
 - ekipamenduaren doikuntza egokiak eta erabilera
- Ardiak eta ahuntzak **animalia gidariak (adibidez, ardi trebatuak)** erabilia manipula eta mugitu daitezke. **Txakurrak ez** dira erabili behar animaliak hiltzeko hiru faseetan.

Hegazti-ustiategiak antolatzeke araudi berria

Argitaratu berri den uztailaren 27ko 637/2021 Errege Dekretuak, hegazti-haztegiak antolatzeke oinarrizko arauak ezartzen dituenak, indartu egiten ditu abere-osasunaren eta baserrietako biosegurtasunaren arloko betekizunak, eta ingurumen-arloko konpromisoak hartzea eskatzen du, ura, airea eta lurzorua babestearekin eta klima-aldaketaren aurkako borrokarekin lotuta.

Errege Dekretu berri horrek **sakon berrikusten du orain arte haragirako hegazti-sektorerako indarrean zegoen araudia**, 2005ekoa baitzen, eta erruteke hegazti-sektorea ere jasotzen du, orain arte ez baitzuen berariazko antolamendu-araurik.

Araudi berri horrek ezartzen dituen berrikuntzen artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Ustiategiko **albaitariaren figura nahitaez sartu behar da**, eta hura arduratuko da animalien osasunarekin eta ongizatearekin lotutako alderdiei buruz aholkatzeaz.
- **Abeletxean kudeaketa-sistema integral bat izateke betebeharra**. Sistema horretan, besteak beste, honako arlo hauetan ezarritako planak eta protokoloak jasoko dira: osasun-arloa, garbitasuna, instalazioen mantentze-lanak, animalien ongizatea, simaurrak edo hainbat hondakin kudeatzea, eta antibiotikoen prestakuntza eta kontrola.
- **Animalien ongizatearen arloko egungo arau-esparrua finkatzea**, prestakuntza-baldintza horizontalak ezarriz eta abeletxe bakoitzerako banakako plan bat eskatuz, animalien ongizaterako arrisku potentzialak ebaluatzeke.
- **Abeletxeek simaurrak kudeatzeke plan bat izan behar dute nahitaez**, airea eta lurzorua kutsa ez daitezen. Plan hori ingurumen kudeaketarako plan indibidualizatu baten parte izango da abeletxe bakoitzerako.
- **Abeletxeek gas kutsagarrien isuriak murrizteke neurriak martxan jartzeko betebeharra**, batez ere amoniakoarena eta berotegi-efektuko gasena, eta erregistroak banan-banan izan beharko dituzte.

Europako Parlamentuak babestu egin du abeltegietan kaiolak kentzea

Europako Parlamentuko diputatuek ebazpen bat onetsi dute Europar Batasun osoan 2027rako karioletan hazteari uzteko.

Ebazpen horrek 2018an Batzordean erregistratu zen [“End the cage age”](#) herritarren legegintzako ekimenari erantzuten dio. Ekimen horren bidez milioi bat sinadura baino gehiago bildu ziren 18 estatu kidetan; izan ere, une honetan herritarrek gero eta gehiago aztertzen dute abeltzaintza intentsiboa eta EBri aldaketa gehiago egiteko eskatzen diote.

Testua gehiengoz onetsi zuen ganberak, eta testu horretan Batzordeari eskatzen zaio gara dezala legeria bat kaiolak erabiltzeari apurka-apurka uzteko. Prozesu horrek aldi iragankor bat izango du eta ebaluazio zientifikoetan oinarritzen da.

Hainbat estatu kidetan sistema alternatiboak aplikatzen ari dira, arrakastaz, baina Europako Parlamentuko diputatuek uste dute Europa mailako lege bat egin behar dela ekoizle guztiak parekatzeko.

- Kaiolak **apurka-apurka kentzea** eta hazkuntza-sistema berriak ezartzea **espezieen beharretara egokituta**.
- **Epe iragankor bat ezartzea**, ekoizleek beharrezkoak diren **aholkularitza, prestakuntza eta pizgarri ekonomikoak jaso ditzaten**.
- Inportatutako produktuentzat estandarrak parekatzea eta dauden merkataritza-**akordioak berrikustea**, produktu horiek Europar Batasuneko araudia bete dezaten, karioletako hazkuntza-sistema barne.
- **Debekatzea ahateak eta antzarak indarrez elikatzea** foie-grasa ekoizteko.

Laburbilduz, testuaren helburua da, batetik, saihestea ekoizleak galtzea eta EBtik kanpoko beste herrialde batzuetara joatea (animalien ongizate-estandar baxuagoak dituztenetara), eta, bestetik, **elikadura-politika zorrotzago** baten aldeko apustua egitea, elikadura-sistema iraunkorrago bateranzko trantsizioa babesteko.

Behien ongizatea hilketak irauten duen bitartean

EFSAk ebaluazio bat argitaratu berri du, behiek hilketak irauten duen bitartean duten ongizatea aztertzeko. Ebaluazio horrek azterketa eta ikerketa zientifiko eguneratuenak ditu oinarri.

Agentziak hainbat irizpen zientifiko eman ditu hilketan zeharreko animalien ongizateari buruz, eta

azkeneko hau Europako Batzordeak eskatuta egin zuen. Egin ezazu animalia hauen ebaluazioen jarraipena: [eskortako hegaztiak](#), [untxiak](#) eta [txerriak](#).

Hilketan zehar animalien ongizateari zuzenean eragin diezaioketen 40 arrisku identifikatu dira; horietatik gehienak (40tik 39) sortzearen arrazoiak dira **langileen behar besteko gaitasunik eza eta langileen nekea**.

Arrisku horiek saihesteko eta zuzentzeko neurriak identifikatu ziren. Ebaluazioan agerian geratu zen **egiturarekin eta kudeaketarekin lotutako neurriak funtsezkoak** direla arrisku horiek saihesteko, eta emaitzen taulak egin ziren prozesu bakoitzerako. Taula horietan arriskuak eta animalien ongizatea erlazionatzen dira, eta animalien ongizateak jasan ditzakeen ondorioak arintzeko neurriak proposatzen dira.